

ONARRIAK: Aratosteetako kuadrillen kalejirako lehiaketa 2026

Aratoste zapatu goizean kuadrillen eta familien ilusio eta lanari esker sortzen den jai-giro politari distira eman nahian, Eibarko Udalak kuadrillen arteko desfile-lehiaketa antolatu du.

Lehiaketan parte hartzeko oinarriak honako hauek dira:

Lehena. Noiz.

Desfilea 2026eko otsailaren 14an, larunbata, izango da, 12:30ean.

Bigarrena. Parte-hartzaileak.

Kuadrillaren parte-hartzaile kopuruak bi motatakoak izan daitezke:

- **Kuadrilla:** Gutxienez 10 partaide izan beharko ditu taldeak.
- **Kuadrilla txikia:** 4tik 9ra bitarteko partaide kopurua duten taldeak.

Hirugarrena. Parte-hartzaileen adina.

Kuadrilla: kuadrillak bi motakoak izan daitezke, helduen kuadrillak eta haurrenak.

- **Helduen kuadrillak:** Helduen kuadrillatzat hartzen da kideen erdia baino gehiago 16 urtekoak edo hortik gorakoak direnean.
- **Haurren kuadrillak:** Haur-kuadrillatzat hartzen da kideen 3/4 baino gehiago 15 urtekoak edo hortik beherakoak direnean (horiek barne).

Kuadrilla txikia: Kuadrilla txikiak bi motakoak izan daitezke, helduen kuadrillak eta haurrenak.

- **Helduen kuadrilla txikiak:** Helduen kuadrilla txikitatzat hartzen da kideen erdia baino gehiago 16 urtekoak edo hortik gorakoak direnean.
- **Haurren kuadrilla txikiak:** Haurren kuadrilla txikitatzat hartzen da kideen erdia baino gehiago 15 urtekoak edo hortik beherakoak direnean (horiek barne).

Laugarrena. Gaia eta disfrazak.

Disfrazen gaia librea izango da, taldekideek aukeratuko dute.

Taldekide guztien disfrazek gaiarekin erlazio zuzena izan beharko dute.

Bostgarrena. Izen ematea.

Izena emateko epea **2026eko urtarrilaren 26an** hasiko da eta **otsailaren 11an** amaitu.

Lehiaketan **izena ematen duen pertsonak adin nagusikoa** izan behar du.

Lehiaketan parte hartzeko, izena emateko bidea:

<https://formularioak.eibar.eus/eu/aratosteetakokuadrillenkalejira2026>

Izena ematerako orduan, eskatzaileak ondorengo datuak erraztu beharko ditu:

- Eskatzailearen datuak.
- Kuadrilla mota.
- Kuadrillaren izena.
- Disfrazaren gaia.
- Kuadrillaren partaide kopurua.
- Desfilean turismo-ibilgailurik (motorrez lagunduak) erabiliko den.

Seigarrena. Ibilbidea.

Desfilea 12:30ean hasiko da Untzagan. Ibilbidea honako hau izango da:

Untzaga, Kalbetoi, Bidebarrieta, Zuloagastarren, Toribio Etxebarria eta Untzaga (grada aldea).

Izena ematen duten taldeek ibilbide guztia egin beharko dute.

Zazpigarrena. Desfilea.

Desfilean, turismo-ibilgailuek parte hartu ahal izango dute.

Desfilea hasi baino **ordu laurden lehenago (12:15ean)** taldeko arduradun bat (bakarrik bat) Untzagako karpan dagoen eskenatokira etorri beharko da desfilearen zenbakia jasotzera. Zenbakia desfilearen ordena adierazteko da.

Desfilean turismo-ibilgailu batekin parte hartu ahal izateko, indarrean dagoen dokumentazio hau erakutsi beharko da, desfilerako zenbakia jasotzerakoan:

1. **Ibilgailuaren gidariaren gidatzeko baimena.**
2. **Ibilgailuaren zirkulazio-baimena.** Baimenik ezean, Trafikoko Bulego Nagusiak sortutako behin-behineko baimena.
3. **Ibilgailuaren azterketa teknikoaren txartela eta IATaren azkeneko informea.**
4. **Indarrean dagoen aseguru-poliza eta aseguruaren azken ordainagiria.**

Banatzen den zenbakia agerian eraman beharko da ibilbide guztian zehar. Antolatzaileek adierazten dituzten adierazpenak bete beharko dituzte taldeek.

Desfilearen amaieran argazki bat egin beharko da Untzaga plazako harmailetan.

Desfilea hasteko orduan euria egingo balu, desfilea Karpan montauta egongo dan eskenatokian egingo litzateke. Talde bakoitzak eskenatoki gainera igo beharko da eta txarangaren abesti zati bat, dantzatu eta desfilaratu beharko du.

Zortzigarrena. Balorazio irizpideak.

Disfrazak taldekideek eginak izatea baloratuko da, eta baita instrumentu, tresna edota tramankuluek aukeratutako gaiarekin erlazio zuzena izatea ere.

Aukeratutako gaiarekin zerikusi zuzena duten dantza, abesti, koreografia, musika zein bestelakoak desfilearen ibilbidean zehar egitea ere baloratuko da.

Epaimahaikide bakoitzak hurrengo taulan azaltzen diren balorazio-irizpideak puntuatuko ditu 1etik 5era:

Balorazio-irizpideak	1	2	3	4	5
Gaia					
Disfrazen diseinu eta konfekzioa					
Animazioa kalejiran zehar, abestiak, antzerki-izaera, koreografiak					
Tresna, tramankulu edo karrozak					

Bederatzigarrena. Desfilea bertan behera gelditzea.

Adierazita azaltzen den desfile-data bakarra izango da. Arrazoi klimatologikoengatik edo ezbeharren batengatik antolatzaileek desfilea bertan behera utzi ahal izango dute. Desfilea bertan behera gelditzen bada, ez da inola ere beste data batera aldatuko.

Hamargarrena. Informazioa.

Arau hauen inguruan edozein zalantza izanez gero, helbide honetan izango duzue argitzeko aukera: Portalea. Kultura saila. 943 708 435 telefonoan edo kultura@eibar.eus helbide elektronikoan.

Hamaikagarrena. Epaimahaikideen erabakia eta saria.

Kuadrilla helduak

- 1. saria.....400€
- 2. saria.....200€
- 3. saria.....100€

Kuadrilla haurrak

- 1. saria.....200€
- 2. saria.....100€

Kuadrilla txikia helduak

- 1. saria.....200€
- 2. saria.....100€

Kuadrilla txikia haurrak

- 1. saria.....100€
- 2. saria.....75€

Epaimahaikideen erabakia 2026eko otsailaren 14an arratsaldeko 19:30ean jakinaraziko da Untzaga plazan izango den familia eta haurrentzako dantzaldian.

Irabazleek eszenatokian jasoko dituzte sariak.

Hamabigarrena. Oinarrien onarpena.

Lehiaketa honetan izena emateak bai oinarriak bai epaimahaikideen erabakia onartzea dakar.